JAUNGOIKO ERRUKITSUA

Paul'go Bizente donearen garaikoa dogu Queriolet agurgarria. Beronen bizitza zakarra, ogei ta amar urtetan beintzat, jakatu ta autoritzez eundua.

Gorroto baltza eutson Kristo'ri, ta egun batez, Konstantinopla'ra zuzendu zan, Mahoma'ren siñistearizko asmoz. Baiña Jainkoa arako bide-gurutzean zukon zain; Alemani'ko baso triñku bat igarotean, lapur-aldra batek bidera urtenik, bere lagunetatik bi il ta bere bizitza be arriskuan jarri eban. Orduan Queriolet'ek, bildur-ikarak izozturik, galzori atatik onez iges egiten ba'eban, bide oneratuko zala agindu eutson Andra Maria'ri. Arriskutik urten ezan, eitzan bide oneratu; eta Mahomatar egin eziñik, Prantzi'ra biurtu ta Kalbino'tar egin zan.

Baiña Jaungoikoa bere atzetik ebillen, artzaiña bide okerrez doian bildotsaren ondotik lez. Gau baten trumoi otsak itzartu eban; oiñaztarriak bere etxea erlauts egin eban, inguru guztia sutan jarririk. Beralakoan, zapart egin [illegible] baldan [illegible], ikubillak estutu ta biotza dardara, [illegible] alde dagi andik.

Jaunak, alan eta guzti be, [illegible] dau bere asmoaren [illegible]: edozein gizonek [illegible], baiña Jainkoak ez.

Emakume [illegible] Lou-dun'en, [illegible] Alemani'a [illegible] kuetan [illegible]

[illegible]